



Lotutako edo mendeko erakundeak

Sortuk berari atxikitako fundazio bat dauka, "IRATZAR FUNDAZIOA" izeneko. Alderdi Politikoak Fundazioan daukan partaidetzaren portzentajea %100 da eta, beraz, Sortuk konpromisoa hartzen du Fundazioaren aurreneko jarduera programaren gastuak estaltze aldera beharrezkoak diren funtsak jartzeko, baldin eta aurreikusita dauden finantziario iturrietakoren batek emaitzarik ez badakar. Fundazioaren matrizea SORTU da, eta fundazioaren helburuak honen estatutuen 5. artikuluan zehazten dira, laburbilduz ondorengoak direlarik:

1. SORTUren eratzearen arrazoi ideologikoen oinarriak zabaltzea eta hedatzea; Independentzia, euskalduntze osoa, sozialismoa, askatasunean eta justizian oinarritutako etorkizun baketsu bat, feminismoa, elkartasun anti-inperialista eta demokrazia partehartzailea.
2. Euskal Herri soberano baten alde, demokraziaren alde, mundu aske, justu eta solidarioago baten alde lanean dabiltzan pertsona eta erakundeentzako pentsamendu politikoa hedatzeaz arduratzen da. Hau Euskal Herriko herrialde eta herri ezberdinetan elkarlanean gauzatzen dutelarik, beraiek beraien arteko ezagutza izan dezaten.
3. Ezker Abertzalearentzako gogoeta, azterketa eta ekarpen ideologiko berriak jasotzeko eremu bat finkatzea.
4. Gizarte inklusiboagoa, parekideagoa, jasangarriagoa eta partehartzaileago baten alde eztabaidak sustatu eta proposatzen diren ekintzak zabaltzea eta erakustea.
5. Erakunde sozial eta politikoekin harremanak sustatzea, baita Euskal Herri soberano baten defentsa egiten duten munduko beste edozein pertsona zein erakudeekin ere.
6. Sarea indartu eta aliantza politikoak ezkertiarrik zein herrien askapenerakoa aliantzak, identifikatu eta sustatu, bateratutako agenda bat osatuz elkarbanatu daitezkeen balore eta ideak partekatuz.
7. Memoria historikoa berreskuratzeko tresna kolektibo bat izatea. Eztabaidagai izan dadin era iraunkor batean eta egunerokotasunean.

Ekinbidean zehar burututako ekintzak helburu fundatzailean oinarritutakoak izan dira soil soilik.